

Urrats aldebakarrekoak, eta bake prozesua geld

EPPK-K Gernikako Akordioarekin bat egin ondoren, ezker abertzaleak beste urrats handi bat eman du bakearen bidean. Eta ETako presoak nagusi diren kolektiboak urrats hau eman ondoren, badirudi harmailetan gora urrats publiko bakarra geratzen dela: ETak bere jarduerak armatua bertan behera uzten duela publikoki jakinaraztea eta, ondorioz, erakunde gisa desagertu egiten dela.

Normalizazio politikoan aurrera egin ahala eta bake prozesu bat gorpuztu ahala ETaren iragarpen hori litzateke logikoena, eta hala izango dela gero eta zalantza gutxiago dago; noiz ordea, hori beste kontu bat da. Normalizazio politikoan urratsak ematen ari diren moduan, ez dirudi norabide hori egonkortu eta ordenatu behar lukeen bake prozesuan beste horrenbeste gertatzen ari denik. Eta hori larria da.

Euskal gizartea aspalditik ari zaio eskatzen desagerpena ETari eta bide horretan urratsak gero eta agerikoago diruditenean, PPK eta PSOEk bide hori blokeatzen dute, edozer egiteko lehenik ETak bere desagerpena eskatu behar duela argudiatuz. Eta barkamena eskatu, eta biktimei eragindako mina konpondu... eta batek daki zer. Prozesu baten bukaera edo bidea den hori guztia hasieran jarritz.

Eta euskal gizarteak ulertzen du urteetan eskatzen ari den bake hori zangotrabatzen ari dela eragile politiko asko, bereziki Estatuaren gertukoenak. Eta ulertzen du beste batzuek urratsak ematen ari direla bakearen bidean eta, besteak beste, hori eskertzen dio Bilduri boto uholdea eskainiz. Aldebakarreko erabakian borroka armatua



ARGAZKI PRESS / ANDONI CANELLADA

alboratzea erabaki zuenetik, urrats ugari eman dituzte ezker abertzaleak, Bilduk eta, azken finean, Gernikako Akordioan egituratzen diren indarrek. Estatuaren aldean Bilduren legalizazioa da urrats positibo bakarrenetakoa, eta ez da gutxi, baina gainerako ia guztia oztopoak jartzea izan da, Bateraguneko epaiak argi erakusten duen gisan.

Bide oztopatzaile horretatik ezin du inork irabazi, bake bidean egingako urratsak Bilduk baliatuko dituen beldur dira gainerako eragile politikoak, konturatu barik antza, Bildu arrakastaz ari bada hori bakearen alde ematen ari den urratsengatik dela, besteak beste. EAJ bera ere uzkur dabil bakegintzaren kudeaketan. Gernikako Akordioan, esate baterako, ez da edukirik berak onartu ezin dezakeenik, baina jakina, bere irudiarentzat ez da txukuna gaur egun besterik gabe Gernikako Akordioa sinatzea eta listo, baina asmatu behar du bakegintzaren eta bere ohiko politikaren bideak paraleloan eramaten, hortik arriskua baino onura besterik ez zaiolako etorriko.

Hauteskunde garaia da berriz eta, logikoa den gisan, bakoitzak bere ziliborrera begiratzeko unea, baina azaroaren 20aren ondoren bada ordua eragile politiko guztiak benetako bake prozesuaren egitu-

raketan zentra daitezten. Ez da logikoa Gernikako Akordioaren eta EAJren artean elkarlanik ez izatea eremu honetan, bi mundu horien artean bakearen aldeko presiorik ez eragitea. Izan behar du biderik bakoitzak bere praxi politikoa aurrera eraman eta, aldi berean, bake prozesuaren eraikuntzan elkarrekin eragiteko.

KUKUTZAKO desmasiek erakutsi dute Bilboko Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako agintariak ezker esku gutxi dutela arazo arantzatsuei irtenbide integral handiak emateko. Borraren bidea zen samurrena eta hori erabili dute. Legearen inperioaren izenean.

Eta aurreko paragrafoekin lotuz, batek zirrara berezia sumatzen du bizkarrezurrean pentsatzen duenean Kukutzakoa modu zibilizatua goan konpontzeko gaitasunik ez duenak nola helduko dion euskal gatazka moduko bati. Epailearen gana iritsi aurretik konpondua behar zuen arazoak, gero haren aginduan babestu barik. Eta agindua eta gero ere, irakurleak gogoratuko du halakoak saihesti diren kasu ugari. Adibidez, iragan maiztean hauteskunde kanpainaren hasieran M-15eko bilkurak bertan behera uztea ebatzi zuten epaileek, baina Rubalcabak berak erantzun zuen —PPren presioei eutsiz— polizia ez zegoela arazo gehiago sortzeko, hauek saihesteko baizik.

Kukutzak kultur bizitza oparoa izan du, hori ez du inork zalantzak jartzen Errekalden, eta ez da batere erraza gehiengo handi batek gazte bati aitormen hori egitea. Interes publikoa esaten zaio horri, eta oraingoan interes pribatuaren defentsa publikoaren defentsari gailendu zaio.